



INGURUMENA BABESTEKO LAGUNTZAK – ko deialdia –

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Entitatearen legezko ordezkaria

Entitatea (sozietate-izena)

IFK zk.:

Nik,

jaunak/andreak,

IFZ zk. dudanak, ordezkaria naizen aldetik nire erantzukizunpean adierazten dut ordezkatzeko dudako entitate eskatzaileak:

Erantzukizunpeko adierazpenak

Lehenengoa.- Bateriaezintasunei buruzkoa¹

- Entitate horrek eskabidea aurkeztu duela BAI EZ duela eskabidea aurkeztu edota dirulaguntza eskuratu eskatutako proiektu(ar)entzat, gaur arte, behean zerrendatzen diren erakunde publiko edo pribatuetan, eta, gainera, konpromisoa hartzen duela horretarako egiten dituen eskabide guztien berri emateko.

Proiektuaren izenburua Deialdi honetan aurkeztua	Proiektuaren izenburua Beste erakunde bati aurkeztua	Erakundea	Egoera	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa
			Ukatua Emana Izapidetzen		

¹ Eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio bestelako dirulaguntzarik jaso ote duen edozein administrazioetatik, bai eta dirulaguntza eman duen organoa eta zenbatekoa ere, egoera horren berri izan eta hurrengo hamar egun balioduneko epean.

Bigarrena.- Zehapenei buruzko adierazpenak

Puntu bakoitzerako laukia markatu behar da, edo, bi aukeren kasuan, lauki bietako bat.

- Entitate horrek ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere.
- 2a. Entitate horri ez zaiola zehapen-espediterik egin ingurumen-legeria ez betetzearen ondoriozko falta astunengatik edo oso astunengatik.
- 2b. Entitate horrek, ingurumen-legeria ez betetzearen ondoriozko falta astunengatik edo oso astunengatik zigortua, dagozkion neurri zuzentzaileak bete dituela dagoeneko, eta zehapena ordaindu duela.

3. Entitate hori ez dagoela izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta.
- 4a. Enpresa horri ez zaiola zehapen-espediterik egin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.
- 4b. Entitate horrek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea ez betetzeagatik zigortuta dagoenak, dagokion zehapena ordaindu duela, eta ez dagoela dirulaguntza eta laguntzearako deialdietan parte hartzeko debekua ezartzen duten egoera batean ere ez.

Hirugarrena- Estatuaren Laguntzei buruzko adierazpenak

Markatu dagokiona

1. Entitate horrek ez duela legez kanpokotzat edo bateraezintzat jotako aurretiazko laguntzarik jaso, bereziki, Estatuako laguntzak n1 48/99 CR, 49/99 CR eta 58/00 CR Araban, 50/99 CR, 53/99 CR eta 59/00 CR Gipuzkoan eta 52/99 CR, 54/99 CR eta 60/00 Bizkaian.
2. Entitate horrek laguntza horietako bat edo batzuk eskuratu dituela eta itzuli egin dituela, interesak barne.
3. Entitate horrek laguntza horietako bat edo batzuk eskuratu dituela eta ez dituela itzuli.

Laugarrena.- Enpresaren Tamainari buruzko adierazpenak²

- Enpresa horretan honako hauek lan egiten dutela:

Plantillako langile kop.	Gizonak:	
	Emakumeak:	

- Enpresa hori:

EZ da enpresa-talde batekoa

BAI, enpresa-talderen batekoa da, zehazki taldekoa,

eta % (e)ko partaidetza du.

- Enpresa hori:

aurrekoa eta enpresaren fakturazio-bolumena kontuan hartuta, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioaren ondoretarako, enpresa honela dago sailkatuta:

Enpresa handia Enpresa ertaina Enpresa txikia Mikroenpresa

² Ondore horietarako, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendia hartuko da kontuan, mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa (C(2003) 1422 zenbakiarekin jakinarazia)-Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, 2003ko maiatzaren 20koa.

- Enpresa-elkarteen kasuan, elkarte hori honako hauek osatzen dutela:
(Adierazi elkartekideen kopurua tamainaren arabera)

Enpresa handiak Enpresa ertainak Enpresa txikiak Mikroenpresak

Bosgarrena.- Jarduera-lizentziari buruzkoa

- Enpresak, inbertsioa egingo den zentrorako:

Badauka jarduera-lizentzia Data:

Jarduera-lizentzia eskatu zuen Data:

Ez da nahitaezkoa jarduera-lizentzia enpresa horrentzat

Nahitaezkoa bada ere, enpresak ez du jarduera-lizentziarik

Seigarrena.- Ingurumena Kudeatzeko Sistemari buruzkoa

- Enpresak, inbertsioa egingo den zentrorako:

Badauka EMAS Erregistroa

Badauka ISO 14001 ziurtagiria

Badauka Ekoscan Plus ziurtagiria

Badauka Ekoscan ziurtagiria

Badauka Ekodiseinu ziurtagiria

EZ dauka goian aipatutako ingurumen-kudeaketako sistemetako bat ere ez

Zazpigarrena.- Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoa

- Enpresak, inbertsioa egingo den zentrorako:

Badauka Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat plantillaren kudeaketan

Badauka "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea" aitortpena

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak eta jarduerak garatu ditu (zehaztu):

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan xedatutakoa betetzen du. Sexuaren arabera bereizitako datuak ditu, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten du, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzen du erabakiak hartzeko eremuetan, zuzendaritza-organoetan eta kide anitzekoetan, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan 4/2005 Legearen 3. artikulua ezartzen dituen printzipio orokorrak errespetatzen ditu.

Zortzigarrena.- Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (EGEF) batera finantzatutako laguntzetarako berariazko betebeharrei buruzkoa.

- Enpresa horrek, eskatutako dirulaguntza jasoz gero, bere gain hartzen dituela Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren baterako finantzaketaren ondoriozko betebeharrak.

Deialdi honetan aurkeztutako proiektuen kopurua

Prozedura arruntean aurkeztutako proiektuen kopurua:	
Prozedura sinplifikatuan aurkeztutako proiektuen kopurua:	

Deialdi honetan aurkeztutako proiektuak ez daude Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen aplikazio-eremuaren babesean.

Deialdi honetan aurkeztutako proiektuak, Natura 2000 Sareko Eremu Babestuei modu nabarmenean, zuzenean edo zeharka eragiten ez dietenak.

Bederatzigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarren Interesdunaren Alta-inprimakiari buruzkoa

(Markatu dagokiona)

Dirulaguntza eskatzen duen entitatea BADAGOELA alta emanda Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean.

Dirulaguntza eskatzen duen entitatea EZ DAGOELA alta emanda Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean, eta, beraz, hirugarren interesdunaren altaren inprimakia erantsi du. Hemen eskuragarri dagoen ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datu-aldaketa/web01-tramite/eu/>

Eta jasota gera dadin, dagozkion ondoreetarako, adierazpen hau sinatzen dut:

(e)n,

(e)(a)n

(lekua)

(data)

(Ordez kariaren sinadura)

Elektronikoki sinatutako dokumentuaren ordez sinatutako dokumentuaren kopia eskaneatu bat aurkeztu nahi bada, dokumentuak orri guztietan egon beharko du sinatuta.